BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4378

ERABAKIA, 2013ko uztailaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluarena, honako eskumen hauek eskuordetzan emateko dena: Zerbitzu Orokorren zuzendariari, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurkako ondare-erantzukizunezko erreklamazioen prozedurak hasteko eta bideratzeko eskumena, eta erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari, erreklamazio horiek ebazteko eskumena.

30/1992 Legearen 142.2 artikuluan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 7.y) artikuluan ezarritakoa betez (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartu zituen aipatu estatutuak), erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluari dagokio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurka aurkeztutako erreklamazioen ondoriozkoak diren ondare-erantzukizunezko prozedurak hastea, tramitatzea eta ebaztea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, beharrezkoa den guztietan, eta, gutxienez, hiru hilean behin, ohiko bilkura egiten du.

Prozedura mota hori tramitatzeak administrazio-egintza ugari sustatzea eta bideratzea dakarrenez, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak bilkurak aldiro-aldiro egiten dituenez, eskumenak eskuordetzeko erabaki hau emateko nahikoa arrazoi dago.

Eskumenak eskuordetzeak administrazioak azkarrago funtzionatzea ahalbidetzen du, eta bai Administrazioaren, bai herritarren alde egiten du, betiere, interes publikoen babesak eskatzen dituen berme juridikoak zorrotz errespetatuta. Horregatik, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13. artikuluak eta oro har aplikatzekoak diren gainerako xedapenek emandako eskumenak baliatuz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2013ko uztailaren 29ko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren zuzendariari eskuordetzan ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurkako erreklamazioen ondoriozko ondare-erantzukizunezko prozedurak hasteko eta bideratzeko eskumena.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari eskuordetzan ematea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurkako erreklamazioen ondoriozko ondare-erantzukizunezko prozedurak ebazteko eskumena.

3.– Erabaki honen bidez emandako eskumen-eskuordetzea baliatuz ematen diren administrazio ebazpen guztiek espresuki jasoko dute eskuordetze hori (EHAAn zein egunetan eta zein zenbakitan argitaratu zen adierazita), eta eskuordetzen duen organoak emandakotzat hartuko dira.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak edozein unetan ezezta dezake Erabaki honetan eskuordetutako eskumenez baliatzea.

5.– Eskuordetze honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 29a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.